

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**13/2022 Foru Araua, ekainaren 15ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira Arabako Foru Aldundiak errepideko lurreko garraioen arloan zerbitzu ematearen, nahitaezko titulu eta liburuak jaulkitzearen eta jarduerak egitearen tasak**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko ekainaren 15ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

13/2022 Foru Araua, ekainaren 15ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira Arabako Foru Aldundiak errepideko lurreko garraioen arloan zerbitzu ematearen, nahitaezko titulu eta liburuak jaulkitzearen eta jarduerak egitearen tasak.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Arabako Batzar Nagusiek, azaroaren 10eko 23/2021 Foru Arauaren bidez, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin hitzarmen bat sinatzea berretsi zuten, errepideko garraioaren arloko foru eguneraketari buruzkoa.

Hitzarmen hori 2021eko abenduaren 29an sinatu zen, eta, egun berean, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Lurralde Historikoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordeari atxikitako aurrekontu baliabideak eskualdatzeari buruzko akordioa egin zen. Bitariko Batzordearen akordio hori geroago onetsi zen Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 11ko 1/2022 Foru Dekretuaren bidez (ALHAOn argitaratu zen, 2022ko urtarrilaren 14an).

Hitzarmen horren seigarren klausularen arabera, "Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du garraioaren lanbide jardunerako eskatzen den lanbide gaitasuna eskuratu, egiaztatu eta kontrolatzeko eskumena, eta horren barruan sartzeko da errepideko garraioaren jardueran aritzeko lanbide gaitasunaren administrazio titulua egiaztatzeko eta emateko proben deialdia egitea eta proba horiek egitea".

Orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuko Administrazio Orokorrek egiten izan du proba horien deialdia, eta, beraz, Arabako Foru Aldundiak eskumen berri hori bere gain hartzeak tasa berriak sortzea eskatzen du.

Halaber, apirilaren 20ko 284/2021 Errege Dekretua onesteak, zeinaren bidez arautzen baita errepideko garraiorako zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza eta etengabeko trebakuntza, 1032/2007 Errege Dekretuan jasoriko GGARI buruzko aurreko araudia indargabetzea ekarri zuen.

284/2021 Errege Dekretu berriak aldaketa esanguratsu batzuk ekarri ditu 1032/2007 Errege Dekretuan jasotako aurreko erregulazioarekiko; izan ere, GGA zentroaren baimena bakarra da, baina ikastaroak eman nahi dituzten sukurtsal edo gela mugikor bakoitzaren berri eman beharko diote organo eskudunari. Aurreko araudiaren arabera, ikastaroak emateko zentroak zituen gela adina baimen ematen ziren GGA zentrotarako.

Era berean, berritzailea da, halaber, GGA zentroen baimena ez izatea mugagabea, baizik eta haren indarraldia bost urtean behin egiaztatu behar izatea, GGA enpresak baimena emateko eskatzen diren baldintzak betetzen jarraitzen duela egiaztatzeko. Bost urtean behin egiaztatzeko aurreikuspen bera aurreikusten da GGA zentroak dituen sukurtsal edo gela mugikorrerako.

GGA zentroen, sukurtsalen eta ikasgela mugikorren bost urteko ikus-onespen berritzaile hori, jakina, ez dago 21/2015 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarrian jasota, zeinaren bidez salgaien edo bidaiarien errepedeko garraiorako zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntzaren eta etengabeko trebakuntzaren arloan zerbitzuak ematearen eta jarduerak egitearen tasak arautzen baitira. Sukurtsalak eta ikasgela mugikorrek irekitzearen tasa ere ez dago 21/2015 Foru Arauan jasota.

Horregatik, komeni da GGA tasei buruzko araudia eguneratzea, tasa berriak sortuz, bai sukurtsalen eta ikasgela mugikorren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko zerbitzua emateagatik, bai GGA zentroen, sukurtsalen eta ikasgela mugikorren bost urteko ikus-onespenengatik.

Azkenik, Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren zerbitzuak ematearen tasen arloan araudia sakabanatu ez dadin, komenigarria da foru arau berri bat onestea, gaur egun dauden tasa guztiak jasoko dituen, eta, beraz, hauexetan ezarritako tasak: uztailaren 17ko 12/2000 Foru Arauak ezarritako nahitaezko liburu ofizialak baimentzeko, ikus-onesteko eta emateko aurreikusitako tasak; martxoaren 30eko 16/2007 Foru Arauak araututako erabilera bereziko errepedeko bidaiari garraio erregularrerako baimenak emateagatik aurreikusitako tasak; abenduaren 23ko 21/2015 Foru Arauan jasotako GGAekin lotutako tasak; Europar Batasuneko ez den hirugarren herrialde bateko gidari nazionalaren ziurtagiria egiteko aurreikusitako tasa (abenduaren 31ko 22/2007 Foru Arauaren bidez sortua) eta takografo digitaleko txartelak egiteko, berritzeko eta ordeztzeko aurreikusitako tasa (martxoaren 30eko 15/2007 Foru Arauaren bidez sortua).

Bidaiarien hiri barruko eta hiriarteko garraio publikorako gaitutako turismo ibilgailu bidez banakako ordainketarekin plaza bidezko garraio zerbitzua emateko baimen berezia ematearen tasari dagokionez, zeina sortu baitzen 14/2009 Foru Arauaren seigarren xedapen gehigarriaren bidez, hura indargabetzea proposatzen da, ez baita beharrezkoa; izan ere, ez da ohikoa baimen hori eskatzea, eta ez du zentzu handirik berriazko tasa sortzea turismo ibilgailuetarako soilik; izan ere, turismo ibilgailuei dagokienez, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onesten 1211/1990 Errege Dekretuaren 122. artikuluan jasoriko plazen arabera banakako kontratazioaren baimenen legezko erregulazioak ez ditu bereizten turismo ibilgailuak eta bidaiariak garraiatzeko edukiera handiagoa duten ibilgailuak.

Turismo ibilgailuetarako tasa espezifikoki hori indargabetuta, bidaiarien plazen arabera eta banakako ordainketako garraiorako etorkizunean eskatzen diren baimenek tasa bera ordaindu beharko dute, kontuan hartu gabe ibilgailu garraiatzaileak bederatzi plazako edukiera gainditzen duen ala ez.

## I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea

Foru arau honen xedea da arautzea Arabako Foru Aldundiak errepedeko lurreko garraioen arloan zerbitzuak ematearen, nahitaezko titulu eta liburuak jaulkitzearen eta jarduerak egitearen tasak.

### 2. artikulua. Kudeaketa

Foru arau honetan jasotako tasak garraioen arloan eskumena duen sailean integratutako zerbitzuak kudeatuko ditu, baldin eta, egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuaren arabera, hurrengo kapituluetan aipatzen diren jarduera eta zerbitzuak izapidetu eta kudeatzen baditu.

Jarduera edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; hura egin edo izapidetu aurretik, ordaindu beharreko tasa ordaindu beharko da.

### 3. artikulua. Itzultzea

Eskatutako tasa itzuliko da baldin eta, indarrean dagoen zerga araudiaren arabera, tasaren ordainketa okerreko diru sarreratzat jotzen bada.

Ordaindutako tasa ez da itzuliko interesdunak prozeduran atzera egiten badu edo eskatutako dokumentazioari uko egiten badio, zerbitzu eskudunak jarduera edo administrazio espedientea hasi ondoren.

#### **4. artikulua. Eguneratzea**

Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak xedapen honetan jasotako tasen zenbatekoa aldatu ahal izango dute.

### **II. KAPITULUA. Garraio baimenen tasak**

#### **5. artikulua. Zerga egitatea**

Tasa hauen zerga egitatea da zerbitzu eta jarduera hauek eman eta egitea:

1. Salgaien eta bidaiarien garraio publiko edo pribatu osagarrirako mota guztietako baimenak izapidetzea eta, hala badagokio, ematea, eta, oro har, garraioaren arloan esku hartzeko beste egintza batzuk gauzatzea, barnean sartzen direlarik jarduera lagungarriak eta osagarriak, bai eta etendura ikus-onestea, aldatzea, birgaitzea edo kentzea ere.

2. Europar Batasunekoak ez diren hirugarren herrialdeetako gidarien ziurtagiriak izapidetzea eta, hala badagokio, jaulkitzea.

3. Garraio enpresek nahitaez erabili behar dituzten edo garraioarekin zerikusia duten liburu edo inprimaki ofizialak jaulkitzea eta/edo ematea.

Erabilera orokorreko bidaiarien garraioko zerbitzu publiko erregularren emakidak ez daude tasa horietara lotuak, ezta zerbitzu horien baldintzei buruzko baimenak ere.

#### **6. artikulua. Subjektu pasiboa**

Subjektu pasiboa da garraio baimenaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoa, edo, hala badagokio, haren zerga egitatea osatzen duten zerbitzu edo jardueren onura edo eragina duena.

Halaber, tributuaren subjektu pasibotzat joko dira Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35.3. artikuluan jasotzen dituen erakundeak.

#### **7. artikulua. Sortzapena**

Tasak sortuko dira zerbitzuak edo jarduerak eskatzen direnean; hau da, haien ordainarazpena zehazten duten zerbitzuak eta jarduerak eskatzen direnean.

#### **8. artikulua. Tasen zenbatekoa**

Zerbitzu edo jarduera jakinak direla eta, honako hauek izango dira tasen zenbatekoak:

1. tarifa. Bidaiarien eta salgaien barne eremuko garraio publiko eta pribatu osagarrirako eta garraio operadoreetarako baimenak izapidetzea:

– Bidaiari eta salgaien baimenak (alta, ikus-onespena, birgaitzea eta aldaketa): 28,63 euro ibilgailuko.

– Garraio operadoreen baimenak (alta, ikus-onespena, birgaitzea eta aldaketa): 28,63 euro enpresa bakoitzeko.

– Errepideko lurreko garraioei buruzko araudiak eskatzen dituen gainerako baimenak, foru arau honetako beste ezein apartatuetan berariaz jasota ez daudenak: 28,63 euro baimen bakoitzeko.

2. tarifa. Erabilera bereziko bidaiari garraio erregularrerako baimenak izapidetzea (DRI): 32,44 euro beste baimen baterako eskaera bakoitzeko.

3. tarifa. Europar Batasunekoak ez diren hirugarren herrialdeetako gidarien ziurtagiriak izapidetzea: 28,63 euro gidari bakoitzeko.

4. tarifa. Nahitaezko liburuak.

- Erreklamazio liburua jaulkitzea eta/edo ematea: 9,91 euro.
- Ibilbide liburua jaulkitzea eta/edo ematea: 9,91 euro.

III. KAPITULUA GGA Gidarien Gaitasun Agiriarekin lotutako zerbitzuak ematearen tasak

#### **9. artikulua. Zerga egitatea**

GGA Gidarien Gaitasun Agiriarekin lotutako zerbitzuak ematearen tasen zerga egitatea honako jarduera hauetakoren bat egitea da:

1. GGA enpresentzako baimena izapidetzea eta, hala badagokio, ematea, zeinari esker Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) lortzeko ikastaroetako prestakuntza zentro gisa jardun baitaiteke; sukurtsalek eta ikasgela mugikorrek aldez aurreko jakinarazpenean adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea, eta bost urtean behin ikus-onespena ematea bai GGA enpresei emandako baimenei, bai sukurtsalen eta ikasgela mugikorren gaikuntzari.

2. GGA enpresek emandako hasierako prestakuntzako eta etengabeko prestakuntzako ikastaroen homologazioa izapidetzea.

3. GGA lortzeko probetara aurkezteko azterketa eskubideak.

4. GGAREN ziurtagiriak eta txartelak egiteko eta berritzeko eskaera.

#### **10. artikulua. Subjektu pasiboa**

Subjektu pasiboa izango da aurreko artikuluan adierazitako jarduerak egiteko eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa. Halaber, subjektu pasiboa da zerga egitatea osatzen duten zerbitzuen edo jardueren onuradun dena.

#### **11. artikulua. Sortzapena**

Tasak sortuko dira zerbitzuak edo jarduerak eskatzen direnean; hau da, haien ordinarazpena zehazten duten zerbitzuak eta jarduerak eskatzen direnean.

#### **12. artikulua. Tasen zenbatekoa**

Zerbitzu edo jarduera jakinak direla eta, honako hauek izango dira tasen zenbatekoak:

1. tarifa. GGA enpresentzako baimenak eta gaikuntzak izapidetzea:

- GGA enpresaren baimena izapidetzea eta, hala badagokio, ematea: 362,74 euro.
- GGA prestakuntza ikastaroak izapidetzea eta, hala badagokio, homologatzea: 120,96 euro ikastaro bakoitzeko.

– Sukurtsal eta gela mugikor berrien aurretiazko jakinarazpenean aitortutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea: 181,37 sukurtsal edo gela mugikor bakoitzeko.

– GGA enpresa baimenaren bost urtean behingo ikus-onespena izapidetzea: 181,37 euro.

– Sukurtsalen eta ikasgela mugikorren bost urtean behingo ikus-onespena izapidetzea: 90,68 euro sukurtsal edo gela mugikor bakoitzeko.

2. tarifa. Gidarien Gaitasun Agiria.

- Azterketa egiteko eskubideak: 22,97 euro.
- Gidarien Gaitasun Agiriaren txartela jaulkitzea edo berritzea. 24,12 euro.
- Gidarien Gaitasun Agiriaren egiaztagiria jaulkitzea. 39,78 euro.

## IV. KAPITULUA Takografo digitalen txartelak jaulkitzearen tasak

**13. artikulua. Zerga egitatea**

Tasaren zerga egitatea da bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailu jakin batzuei takografo digitalaren funtzionamendurako eskatzen zaien txartela lehenengoz jaulkitzea, berritzea edo ordeztea.

**14. artikulua. Subjektu pasiboa**

Subjektu pasiboa da Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3. artikuluan aipatutako pertsona fisikoa eta juridikoa edo erakundea, zeinarentzat takografo digitalaren txartela lehenengoz jaulkitzea, berritzea edo ordeztea eskatzen baita.

**15. artikulua. Salbuespena**

Tributu honetatik salbuetsita daude Lurreko Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuko langileei edo beste kontrol organo eta segurtasun kidego batzuetako langileei, errepide bidezko garraioa zaindu eta kontrolatu behar badute.

Salbuetsita egongo dira, halaber, funtzionamendu txarragatik ordeztutako txartel digitalak, baldin eta egiaztatzen bada narriadura ezin zaiola egotzi titularraren erabilera txarrari edo kontserbazio txarrari.

**16. artikulua. Sortzapena**

Tasa sortuko da takografo digitalaren txartela emateko jarduerari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo izapidetu aurretik bidezko kopurua ordaindu beharko da.

**17. artikulua. Tasen zenbatekoa**

Txartela lehenengo aldiz jaulkitzearen, berritzearen edo ordeztearen tasaren zenbatekoa 62,23 euro da.

## V. KAPITULUA. Errepide bidezko garraiorako Lanbide Gaitasuneko Agiria lortu eta jaulkitzearen tasak

**18. artikulua. Zerga egitatea**

Errepide bidezko garraiorako Lanbide Gaitasuneko Agiria lortu eta/edo jaulkitzearen tasen zerga egitatea honako jarduera hauetakoren bat egitea da:

- Errepide bidezko garraiorako Lanbide Gaitasuneko Agiria lortzeko probetarako eta, hala badagokio, hura jaulkitzeko azterketa eskubideak.
- Errepide bidezko garraiorako Lanbide Gaitasuneko Agiria jaulkitzea, bidaiarien, salgaien edo bien modalitatean.

**19. artikulua. Subjektu pasiboa**

Pertsona fisiko bat da subjektu pasiboa, zeinaren izenean eskatzen baita proba egitea edo gidarien gaitasun agiria jaulkitzea.

**20. artikulua. Sortzapena**

Tasa sortuko da azterketan izena emateko edo jaulkitzeko eskaera aurkezten denean; hura egin edo izapidetu aurretik, ordaindu beharreko tasa ordaindu beharko da.

**21. artikulua. Tasen zenbatekoa**

Zerbitzu edo jarduera jakinak direla eta, honako hauek izango dira tasen zenbatekoak:

- Errepide bidezko garraiorako Lanbide Gaitasuneko Agiria lortzeko azterketarako eta, hala badagokio, hura jaulkitzeko eskubideak: 43,58 euro.

– Errepide bidezko garraiorako Lanbide Gaitasuneko Agiria jaulkitzea, salgaien edo bidaiarien modalitatean: 21,79 euro.

– Lanbide Gaitasuneko Agiriak beste titulu batzuk baliozkotzearen bidez lortu eta jaulkitzea: 43,58 euro, bi modalitateak baliozkotzen badira, edo 21,79 euro, bakarra baliozkotzen bada.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean jarrita indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko eta beheagoko mailako xedapen guztiak, eta batez ere hauek:

– 2000rako Aurrekontua Betearazteko uztailaren 17ko 12/2000 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarria.

– 15/2007 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, takografo digitalerako txartel bakoitza jaulki, berritu eta ordezteagatik ordaindu beharreko tasa ezartzeko.

– 16/2007 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, errepide bidezko bidaiarien garraio erregular berezirako baimenagatik ordaindu beharreko tasa ezartzeko.

– 2008rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 18ko 22/2007 Foru Arauaren seigarren xedapen gehigarria.

– 2010erako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 17ko 14/2009 Foru Arauaren seigarren xedapen gehigarria.

– Arabako Lurralde Historikoaren 2016rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 23ko 21/2015 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarria.

#### AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Arabako Foru Aldundian garraioaren arloko eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio dekretua garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Tasak finkatzea jarduera koordinatuko kasuetan.

Tasek izan dezaketen igoeraren zenbatekoa garraio arloan eskumena duen sailaren titularrak ezarriko du, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundiek agiria elkarrekin koordinatuta emateagatik zenbatekoak koordinazio horretara egokitu behar direnean.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 15a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**